

**ALKATETZA
DEKRETUA**

2025 000001883

Xedea

2025eko apirilaren 28an izandako itzalaldi elektrikoaren ondorioz kontratu publikoak izapidetzeko epeak luzatzea.

Aurrekariak

Lehenengoa: 2025eko apirilaren 28an, itzalaldi elektriko orokor bat gertatu zen, eta, besteak beste, estatuko komunikazio elektronikoen sistemari eragin zion.

Bigarrena: Aurrekoaren ondorioak 2025eko apirilaren 29an nabaritzen baitira, oraindik ez baita erabat konpondu gorabehera, operadore ekonomikoek eta kontratazio-organismoek ezin izan dituzte abian diren kontratazio-prozedurei lotutako izapideak egin Sektore Publikoaren Kontratazio Plataformaren bitartez, nahiz eta plataforma operatiboa egon.

Hirugarrena: Hori horrela, etenaldi horren eragina duten kontratazio espedienteetako epeak luzatu behar dira eragindako epeetan.

Argudioak

Lehenengoa: Aipatutako plataformaren funtzionamendu etenaldiarekin eragindako kontratazio espedienteak honako hauek dira:

2025/IDA_ERA_0029
2025/KON_IOS_0002
2023/KON_IS_0017

Hori horrela, eta Administrazio Publikoen Prozedura Administratibo Orokorra arautzen duen 39/2015 Legearen 32.4. artikulua arabera, amaitu bako epeak luzatu daitezke, luzapen zehatzak plataforman argitaratuta.

Estatuko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeak argitaratutako gomendioari jarraituz, komeni da aipatutako espedienteetan **izapideak egiteko epeak bi egun natural luzatzea**, epeak horrela geratuz:

2025/IDA_ERA_0029 (2025eko maiatzaren 15ra arte)
2025/KON_IOS_0002 (2025eko maiatzaren 5era arte)
2023/KON_IS_0017 (2025eko maiatzaren 14ra arte)



Bigarrena: Administrazio-baldintza zehatzen orriak zuzentzeko ahalmena, Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen 2. Xedapen Gehigarrian jasotakoaren arabera, alkateari dagokio.

Erabakia

Goian aipatutako guztia kontuan hartuta, honako hau erabaki dut:

Lehenengoa: 2025eko apirilaren 28an gertatutako itzalaldi orokorraren ondorioz Euskadiko Kontratazio Publikoko plataformak izandako etenaldia kontuan harturik, jarraian zehazten diren kontratazio espedienteetan, izapideak egiteko epeak bi egun natural luzatzea, horrela geratuz:

2025/IDA_ERA_0029 (2025eko maiatzaren 15ra arte)
2025/KON_IOS_0002 (2025eko maiatzaren 5era arte)
2023/KON_IS_0017 (2025eko maiatzaren 14ra arte)

Bigarrena: Epe luzapen hauek Euskadiko Kontratazio Publikoko plataforman argitaratzeko agindua ematea Idazkaritza Sailari.

Hirugarrena: Hurrengo Tokiko Gobernu Batzarrean eta Osoko Bilkuran erabakiaren berri ematea.

Oharra: sinadurea eta data orri-oinan .

